

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 18/2024 Foru Araua, abenduaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusien Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Batzordeak, 2024ko abenduaren 17ko bileran, araugintza-ahalmen osoz, onetsi duela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "18/2024 Foru Araua, abenduaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

*Diputatu nagusia,*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

#### 18/2024 FORU ARAUA, ABENDUAREN 17KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2025ERAKO AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKOA

##### ZIOEN AZALPENA

Aurrekontu hauek Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontuei buruzko urtarilaren 25eko 3/2023 Foru Arauan xedatutakoa betez onesten dira, Ekonomia Itunaren 48. eta 62.b) artikuluetan xedatutakoaren babesean, Arabako Foru Aldundiak 2025erako onetsitako aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuen arabera, bai eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako arau agindua betez ere.

Aurrekontuak gauzatzeko foru arau honen I. tituluan jasotzen da haren funtsezko edukia: Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoko diru sarreraren eta gastuen egoerak onestea eta haren zergei eragiten dieten eta zerga gastuen zenbatekoa kontsignatzea.

II. tituluak Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren zorpetzearen eta bermeak ematearen mugak ezartzen ditu, bai eta finantza eragiketen kudeaketari buruzko arauak ere.

III. tituluan, besteak beste, aurrekontu kredituen eta horien aldaketen arauketa orokorraren berezitasunak arautzen dira.

IV. tituluak aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren inguruko arauak; diruzaintzako arurrerakinak, gastua erreserbatzeko, baimentzeko, prestatzeko eta xedatzeko eskumena duten organoen kontrol ekonomikoa jasotzen ditu.

V. tituluak langileak kudeatzeko araubideari buruzkoa da eta bi kapitulutan banatuta dago. I. kapitulua Foru administrazioiko sektore publikoari buruzkoa da eta II. kapitulua Foru sektore publikoko beste erakunde batzuei buruzkoa. Biek arautzen dute aurrekontu plantillaren eraketa eta funtzionarioen, lan kontratudun langileen, aldi baterako langileen eta goi karguen ordainsariak baita ere, dagokionaren arabera. Gainera, foru sektore publikoko langile gastuen fiskalizazioa arautzen du eta kanpo langileen lana eskatzen duten kontratu eta hitzarmenetan jarduteko jarraibideak ezartzen ditu.

VI. tituluak toki erakundeen finantzaketa arautzen ditu.

– Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua bederatzi xedapen gehigarriren, xedapen indargabetzaile baten eta azken xedapen baten bidez osatzen da; horietan, askotariko aginduak jasotzen dira:

– Lehenengo xedapen gehigarriak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 32.6 artikuluan ezarritako muga ekonomikoak ezartzen ditu.

– Bigarrenak, langile gastuei buruzkoak, ahalmena eta baimena ematen die Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari eta, hala badagokio, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gainerako organo eskudunei kasuan kasuko ordainsari igoera ezartzeko eta xedatzeko.

– Hirugarrenak Arabako Foru Ogasunaren tasen igoera ezartzen du 2025eko ekitaldirako.

– Laugarrenak kendu egiten du Arabako Lurralde Historikoko arrantza esparruetan karra-marroak arrantzatzeko baimenak emateagatiko tasa.

– Bosgarrenak Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua aldatzen du.

– Seigarrenak Arabako toki erakundeek hitzartu beharreko epe luzeko kreditu eragiketak arautzen ditu.

– Zazpigarrenak aldatzen du Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua.

– Zortzigarrenak aldatzen du Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra.

– Bederatzigarrenak AP-1 autobidea erabiltzeagatiko bidesarien zenbatekoak ezartzen ditu 2025erako.

– Hamargarrenak 2025erako zerbitzu aktiboan jarraitzeko luzapena arautzen du.

Jarraian, aurrekontua betearazteko foru arauetan egon ohi den xedapen indargabetzailea ezartzen da.

Horren ondoren, foru araua indarrean jartzeari buruzko azken xedapenetatik lehenengoarekin osatzen da foru araua.

## ITITULUA. AURREKONTUEN ONESPENA ETA EDUKIA

### 1. artikulua. Onespena

Onspena ematen zaie Arabako Lurralde Historikoko 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei. Aurrekontu horiek Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, merkataritzako foru sozietateen, foru fundazioen, enpresa erakunde publikoen eta Arabako Lurralde Historikoko administrazio, enpresa eta fundazioen foru sektore publikoko foru partzuergoen aurrekontuek osatzen dituzte.

### 2. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeen aurrekontu orokorrak

1. Hauexek dira Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako aurrekontuaren osagaiak:

a) Gastuen egoera orriari dagokionez, ordainketa kredituak 3.351.179.110,00 eurokoak dira eta konpromiso kredituak, aldiz, 114.292.221,00 eurokoak.

b) Sarreraren orria: 3.351.179.110,00 euro guztira, zeinetan 80.948.936,00 euroko zorpetze eragiketak jasotzen baitira.

2. Foru erakunde autonomoen 2025eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

2.1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Gastuen egoera orria: 270.414.548,00 euro guztira, eta konpromiso kredituak, aldiz, 7.000.000,00 eurokoak.

b) Sarrerren egoera orria: 270.414.548,00 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 221.704.250,00 euro guztira.

2.2. Gazteriaren Foru Erakundearen aurrekontuak honako osagaiak ditu:

a) Gastuen egoera orria: 7.404.983,00 euro guztira.

b) Diru sarrerren egoera orria: 7.404.983,00 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 5.552.763,00 euro guztira.

2.3. Arabako Foru Suhiltzaileak erakundearen aurrekontuak osagai hauek dauzka:

a) Gastuen egoera orria; ordainketa kredituak 17.512.703,00 euro eta konpromiso kredituak 50.000,00 euro.

b) Diru sarrerren egoera orria: 17.512.703,00 euro guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 17.435.783 euro guztira.

3. Merkataritzako foru sozietateen 2025eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

3.1. Araba Garapen Agentzia SA ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 7.580.348,64 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 1.423.211,38 euro guztira.

3.2. Arabako Kalkulu Gunea SAren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 27.840.970,71 euro guztira.

b) Kapital aurrekontua: 0,00 euro guztira.

3.3. Naturgolf SAren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 1.016.907,00 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 0,00 euro guztira.

3.4. Arabat Arabako Bideak SA ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 13.604.238,03 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 9.510.896,09 euroko zenbatekoa guztira.

3.5. Indesa 2010 SL ren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 26.447.940,22 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 1.018.864,00 euroko zenbatekoa guztira.

3.6 Enargi Araba SAren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 10.664,55 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 570.000,00 euroko zenbatekoa guztira.

4. Foru fundazioen 2025eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

4.1. Artium Fundazioaren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 6.343.545,52 euroko zenbatekoa guztira.

b) Kapital aurrekontua: 308.000,00 euro guztira.

4.2. Kirolaraba Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

- a) Ustiapen aurrekontua: 527.500,00 euroko zenbatekoa guztira.  
b) Kapital aurrekontua: 0,00 euro.

4.3. Santa Maria Katedrala Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

- a) Ustiapen aurrekontua: 2.516.457,56 euroko zenbatekoa guztira.  
b) Kapital aurrekontua: 1.698.908,66 euro guztira.

4.4. Gatz Harana Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

- a) Ustiapen aurrekontua: 2.388.050,00 euroko zenbatekoa guztira.  
b) Kapital aurrekontua: 427.000,00 euro guztira.

4.5. Álava Mobility Lab Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

- a) Ustiapen aurrekontua: 1.348.912,00 euroko zenbatekoa guztira.  
b) Kapital aurrekontua: 1.287.380,00 euroko zenbatekoa guztira.

5. Arabako Lurralde Historikoko zergetan eragina duten zerga gastuak eurotan balioetsi dira 2025eko ekitaldirako 1.129.476.000,00.

### 3. artikulua. Indarraldia

Aurrekontu Orokorren indarraldia Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan xedatutakoa izango da.

## II.TITULUA. FINANTZA ERAGIKETAK

### 4. artikulua. Zorpetzeko baimena

1. Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari epe luzeko zorpetzea dakarten eragiketak egiteko, ekitaldi horretako aurrekontu beharrei aurre egiteko, baldin eta 2025eko abenduaren 31n foru zor bizia 530.568.576,94 eurotik gorakoa ez bada.

2. Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio Arabako Lurralde Historikoan etxebizitza erosteko eta/edo alokatzeko abalen programa baten esparruan bermea emateko, 1.000.000,00 euroko gehieneko saldo biziarekin.

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailari egokituko zaio abalak baimendu eta formalizatzea, bai eta horien baldintzak zehaztea ere.

3. Aldundiko merkataritza sozietateentzat eta foru fundazioentzat ez da baimentzen epe luzerako zorpetzea, salbu eta Arabat, Arabako Bideak - Vías de Álava SA aldundiko merkataritza sozietateari, 30.000.000,00 euroko zorpetze eragiketak ituntzeko baimena ematen baitzaio; eta Arabako Foru Aldundiari, eragiketa horiek bermatzeko baimena.

### 5. artikulua. Beste finantza eragiketa batzuen araubidea

Aurrekontua finantzatzera bideratuta ez dauden finantza eragiketak ondare kontabilitatean soilik erregistratuko dira; nolana ere, lortzen diren etekin garbiak edo egiten diren gastuak aurrekontuari aplikatu ahal izango zaizkio.

## III.TITULUA. AURREKONTU KREDITUEN ERREGIMENA ETA ALDAKETAK

### 6. artikulua. Kredituen izaera

1. Arabako Lurralde Historikoko administrazioen foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuko gastuen egoera orrietan sartutako ordainketa kredituek muga jakina dute.

Lotura mailak eta arauak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren 55. artikuluan ezarritakoak izango dira. Hala ere:

a) Programa mailan lotesleak dira Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko "933200 Ondarearen kudeaketa" programari dagozkion gastuak.

b) Inbertsioen Erakunde arteko Planari dagozkion aurrekontu kredituek izaera loteslea izango dute onartzen diren desagregazio mailarekin.

2. Arabako Lurralde Historikoko enpresa eta fundazioen foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuetako gastuen egoera orrietan sartutako ordainketa kredituak muga jakinik gabekoak izango dira, Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren 56. artikuluan aurreikusitako salbuespenekin eta baldintzetan.

Muga jakinik ez izatearen baldintza hori aplikatuko zaie, halaber, Kirolaraba Fundazioak aurrekontuan onartutakoak baino handiagoak diren diru sarrerekin finantzaturako transferentzia eta dirulaguntza arruntetarako eta kapitalekoen ordainketa kredituei.

3. Kredituen lotura maila edozein dela ere, gastuaren kontabilizazioa eta kredituen aldaketak kasuan kasuko aurrekontu azpikontzeptu edo partidei aplikatuko zaizkie betiere.

#### **7. artikulua. Kreditu transferentzien araubidea**

1. Kreditu transferentzien araubidea Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren II. tituluko III. kapituluaren 2. ataleko 61-64. artikuluetan xedatutakoaren mende egongo da.

2. 62. artikuluan 4. apartatuan xedatutakoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 933200 "Ondarearen kudeaketa" programari esleitutako I. kapituluko ordainketa kredituak artikuluko horren gainerako apartatuetan araututakoaren arabera transferitu ahal izango dira.

#### **8. artikulua. Kreditu transferentziak baimentzeko eskumena duten organoak**

1. Kreditu transferentziak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren 64. artikuluan jasotako organoak baimenduko ditu.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio sail desberdinetako gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak baimentzea, baldin eta 15.000,00 eurotik gorakoak ez badira.

3. Arabako Foru Aldundiko sail, foru erakunde autonomo edo foru partzuergo beraren gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak horien kudeaketaren ardura duen sailak baimenduko ditu, edo foru erakunde autonomoen edo foru partzuergoen kasuan, haiek atxikita dauden sailak, baldin eta 15.000,00 euro baino gutxiagokoak badira.

4. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio gastu programa desberdinei eragiten dieten ordainketa kredituen transferentziak baimentzea, baldin eta 15.000,00 eurotik gorakoak badira.

#### **9. artikulua. Konpromiso kredituen aldaketak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak konpromiso kredituen egoera orria handitu ahal izango du, kreditu berriak onartuz edo baimendutako zenbatekoa handituz; gehienez ere Arabako Lurralde Historikoko administrazioko foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuetan onartutako konpromiso kredituen zenbateko osoaren ehuneko 10era arte.

2. Batzar Nagusiei dagokie konpromiso kredituen egoera handitzea, kreditu berriak onartuz edo baimendutako zenbatekoa handituz, 1. apartatuan jasotako muga gainditzen bada.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontuko 81201. G/231811/76290811 partidari (Kanpezuko egoitza baliabide integralaren eraldaketa) dagozkion aurrekontu-kredituengatik ekitaldi bakoitzari egotzen zaion gastua ez da kontuan hartuko Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren 59.5 artikuluan aurreikusitako muga ondorioetarako.

**10. artikulua. Kreditu aldaketan arloan jarraitu beharreko prozedura**

1. 7.2 artikuluan 933200 "Ondarearen kudeaketa" programari buruz ezarritakoa alde batera utzi gabe, kreditu orokorraren programa jatorri duten sailen transferentzia eskaerek, I. kapituluko kredituei eragiten ez badiete, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskaera egiten duen foru sailak honakoak frogatu beharko ditu: batetik, aurrekontuko zuzkidura handiagoa behar duela eta, bestetik, bere kredituen bidez ezin diola kasuan kasuko kopuruari aurre egin.

b) Horretarako, transferentzia eskaerarekin batera, kasuan kasuko gastu programaren beharren analisia ere aurkeztu beharko du, eta aurrekontua gauzatzeko ezarritako helburuekiko nolako desbideratzeak izan dituen azaldu. Horiez gain, sail horren kredituen burutzapen aurreikuspenei buruzko azterlana ere aurkeztuko du.

2. Xedapen libreko egoeran dauden ordainketa kredituak finantzatzea helburu duten aurrekontu aldaketak izapidetzeko, beharrezkoa izango da aldaketa horrekin izapidetuko den espedienteari buruzko dokumentazioa aurkeztea, aurretik dagoen xedapen libreko kredituaren xedeari buruzko dokumentazioarekin batera.

3. Gastu zentralizatuen kontzeptuei eragiten dieten kreditu transferentziak gastu zentralizatua kudeatzen duen organoaren onespena izapidetzearekin batera aurkeztu beharko dira.

**11. artikulua. Kreditu gaikuntzak**

1. Kreditu gaitzeak Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

2. Edonola ere, Foru Gobernu Kontseiluak izango du gaitzeak egiteko eskumena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak proposatuta.

Hala ere, 65. artikulua 2.2 apartatuan jasotako kasuan, Foru Gobernu Kontseiluak izango du gaitzeko eskumena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak proposatuta, baldin eta zenbatekoa ez bada inbertsio errealean besterentzeari buruzko diru sarreraren kapituluaren ehuneko 10 baino handiagoa; bestela, Arabako Batzar Nagusiek izango dute eskumena.

**IV. TITULUA. AURREKONTUEN KUDEAKETA ETA KONTROLA****12. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren gastua erreserbatzea, baimentzea, xedatzea eta prestatzea**

1. Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 75. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiaren eremuan, eragiketa arrunten eta kapital eragiketen gastuak hauek erreserbatu, baimendu, prestatu eta xedatuko dituzte:

a) Foru sail bakoitzeko titularrak, baldin eta eragiketa bakoitzeko zenbatekoa 200.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

b) Foru Gobernu Kontseiluak, foru sail bakoitzeko titularrek proposatuta, baldin eta zenbatekoa 200.000,00 eurotik gorakoa bada.

Hala ere, kontratu txikien eta 5.000,00 eurotik beherako beste gastu batzuen kasuan (BEZik gabe), gaiaren arabera eskudun diren zuzendaritzetako titularrek gastuak erreserbatu, baimendu, prestatu eta xedatu ahalko dituzte, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 13ko 48/2022 Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

2. Bat etorri Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 77. artikulua 6. apartatuan jasotakoarekin, 50.000,00 euro izango da eragiketa bakoitzean "Justifikatu beharreko ordainketak" kontzeptupean eman ahal izango den gehieneko zenbatekoa.

**13. artikulua. Diruzaintzako aurrerakinak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, salbuespen gisa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru titularrak proposatuta, atzeratu ezinezko gastuei aurre egiteko diruzaintzako aurrerakinak emateko aukera izango du. Aurrerakin horiek ezingo dute ekitaldi bakoitzean gainditu Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauan onetsitako ordainketa kredituen ehuneko 0,2.

2. Diruzaintzako aurrerakinek aurrekontu babesia izango dute betiere, eta kasuan kasuko aurrerakina egiten den ekitaldiko aurrekontuan agertuko dira halakotzat.

3. Diruzaintzako aurrerakin horiek Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren II. tituluko III. kapituluko 2. atalean aurreikusitakoaren arabera finantzatzeko dira.

**14. artikulua. Kontrol ekonomikoa**

Foru erakunde autonomoetan, zerga eta ekonomia kontrolak ordezkatzeko ditu ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrolak. Salbuespena Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arauak 74. artikuluko a), b) eta c) apartatuetan aipatzen dituen eragiketak gauzatzea da, kontratazioei eta dirulaguntzei dagozkien gastuen espedientei dagokienez, baldin eta zenbatekoa 5.000,00 eurotik gorakoa bada.

**V. TITULUA. LANGILEEN KUDEAKETA****I. Kapituluak. Administrazio foru sektore publikoa****15. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontu plantillak**

1. Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen 2025eko ekitaldiko aurrekontuko plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako Aurrekontu Orokorretako «Langileen eranskinetan» agertzen direnak dira, eta mugatzaileak dira.

2. Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde autonomoen aurrekontu-plantillari dagokionez, izaera mugatzailea funtzionarioen eta lan kontratuko langile finkoen plazen guztizko kopuru metatuari dagokio, Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztientzat.

3. 2025eko ekitaldian, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

4. Aurreko mugak ez du eraginik izango epailearen aginduz edo eskumen berriak eskuratzearen ondorioz edo kanporatutako edo azpikontratutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen ondorioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko ez foru arauak aldarrikatzen direnean ez Gobernu Kontseiluak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduketak garrantzitsuak onesten dituenen ere, behar den moduko finantzaketarik eduki ezean, funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoak aldeko txostena eman ondoren (txostenak adierazi behar du ez dagoela lanpostu atxikipen ez langile esleipen berririk egiterik eta ezinezkoa dela langileak arrazionalizatzeko eta antolatzeke bestelako neurririk aplikatzea).

5. Era berean, artikuluko honetako 3. apartatuko muga ez da aplikatuko Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean 6 plaza sortzeko, horietako bat egiturazko lanpostuak finkatzeko, ez eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoan 9 plaza sortzeko ere, egiturazko lanpostuak finkatzeko, eta 6 plaza sortzeko Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoan.

6. Bete gabeko lanpostuetarako kredituen soberakinak beste lanpostu batzuk edo aldi baterako programetarako langileak ordaintzeko erabiliko dira, betiere, horiek beharrezkoak direnean, zerbitzu publikoek behar bezala funtziona dezaten.

7. Salbuespenezkoa izango da bitarteko funtzionarioak izendatzea zeregin kopuru handiegia edo zereginen pilaketa dela eta, edo aldi baterako programak gauzatzeko, egoeraren arabera beharrei erantzun diezaieten.

**16. artikulua. Ordainsarien araubidea**

1. Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan kontratuko langileen 2025eko ordainsari osoak, 2024ko abenduaren 31n indarrean egon direnekin alderatuta, foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, erkatu diren bi aldietarako homogeneousotasunari eutsita, bai langileei dagokienez, bai antzinasunari dagokionez. Nolanahi ere, ordainsariek ezin izango dituzte gainditu Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak.

2. Aurreko idatz zatian esandakoaz gain, ordainsarietan egokitzapen bereziak egin ahal izango dira salbuespen gisa, betiere ezinbestekoak direnean, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langileen kopuruaren aldaketagatik edo programari ezarritako helburuen betetze mailagatik eta aplikazioaren emaitza indibidualagatik, egokitzapenak egiten dituzten erakundeetako bakoitzean horretarako organo eskudunak onetsita.

Horren ildotik, Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek funts bat ezarri ahal izango dute produktibitate osagarria emateko: errendimendurako pizgarriak zein produktibitate sariak. Kontzeptu horiengatik ordainsaririk emanez gero, kasuan kasuko organo aginpidedunek funts horren banaketaz ezartzen eta onesten dutenaren arabera emango dira. Hain zuzen ere, artikulua honetako 1. apartatua eta 3. eta 4. apartatuetan jasotzen diren langileei, bertan zerbitzuan ari direnei, emango zaizkie. Aurreko paragrafoetan ezartzen denaren arabera 2025eko ekitaldian ordaintzen diren kopuruei abenduaren 28ko 13/2000 Legeak, Estatuaren 2001eko aurrekontu orokorrenak, hamaikagarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen irizpideak aplikatu ahal izango zaizkie hurrengo urterako gehitzeko, enplegatu publikoen oraingo ekitaldiko aldizkako ordainsarien barruan finkatze aldera.

3. Foru kargu publikoak diren pertsonen doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2025ean, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsari horiei Foru Kargu Publikoetan Aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen duena aplikatuko zaie.

4. Behin-behineko langileen ordainsariak kasu bakoitzean berdintzat jotzen diren funtzionario lanpostuen berberak izango dira edota, hala badagokio, lanpostuen sailkapen orokorraren arabera finkatuko dira.

5. Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin negoziazioak egin ondoren ordainsarien inguruko akordioak sinatu baino lehen Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailaren aldeko txostena beharko da, eta akordioan ezin izango da ezarri guztirako ordainsarien igoera artikulua honetako 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoa baino handiagoa izatea.

**17. artikulua. Langile gastuen fiskalizazioa**

1. Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako langileen gastuak kasuan kasuko nominen bidez fiskalizatuko dira. Esku hartze horrek ordainsariaren ordainketa osteko fiskalizazio izaera edukiko du. Gastu horiek gerora fiskalizatuko dira, auditoria tekniken bidez.

2. Ezin izango dira onetsi alde aurreko fiskalizazioaren aldeko txostenik gabe: enplegu eskaintza publikoak; giza baliabideak antolatze planak, lehiaketa orokorreko deialdiak; lanpostu zerrenden aldaketak eta, oro har, Arabako Foru Aldundiarentzat eta foru erakunde autonomoentzat ekonomia eta aurrekontu eragina izan dezakeen beste edozein kasu.

3. Era berean, nahitaezkoa izango da alde aurretik fiskalizazioaren aldeko txostena egitea, lanpostuko, programako eta zeregin gehiegi edo gehiago izateagatik bitarteko funtzionarioak izendatzeko, bai eta berariazko lehiaketarako, izendapen aserako eta zerbitzu eginkizunetarako deialdiak egiteko eta deialdirik behar ez duten beste hornidura sistema batzuen ebazpenak emateko ere.



Foru erakunde autonomoen kasuan, nahitaezkoa izango da alde aurreko fiskalizazioaren aldeko txostena bitarteko funtzionarioak izendatzeko, egiteko gehiegi edo egiteko metaketa dagoenean, eta funtzio zerbitzu eginkizunetarako.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako alde aurreko fiskalizazioaren aldeko txostenaren betekizunetik salbuesten dira presako kasuak, berehala fiskalizatuko direnak.

#### **18. artikulua. Kanpoko langileak barne hartzen dituzten administrazio kontratazioak edo lankidetzak hitzarmenak**

Erakunde publiko edo pribatuen edo kanpoko pertsonen eta Arabako Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomoen arteko administrazio kontratazioaren edo lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, kontratazioaren edo hitzarmenaren garapenean zehar kanpoko langileren baten lana behar bada erakunde horietakoren baten berezko zereginak bete ditzan, erakunde bakoitzaren funtzio publikoaren edo giza baliabideak kudeatzearen arloko organo eskudunaren aurretiko txostena beharko da.

### II. Kapitulua. Foru Sektore Publikoko bestelako erakundeak

#### **19. artikulua. Foru Sektore Publikoko bestelako erakundeen aurrekontu plantillak**

1. Foru merkataritza sozietateen eta foru fundazioen 2025eko ekitaldirako aurrekontu plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako aurrekontu orokorretako langilerari buruzko eranskinetan agertzen dira, eta muga jakinekoak dira.

2. Foru merkataritza sozietateen eta foru fundazioen aurrekontu plantilla muga jakinekoa dela joko da, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen langile lan kontratudun finkoen plazen guztirako agregatuari dagokionez.

3. 2025eko ekitaldian, plantilla aldaketak honako kasu hauetan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da.

4. Gainera, foru arau horrek xedatzen duenez, "aurreko mugak ez du eraginik izango epai-learen aginduz edo kanporatutako edo azpikontratutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen ondorioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko foru arauak aldarrikatzen direnean, ez eta Gobernu Kontseiluak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduketak garrantzitsuak onartzen dituzenean ere, haien behar den moduko finantzaketarik edukiz gero, eta alde aurreko txostena eginda, zeinak adierazi behar baitu lanpostuak berritxikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeke beste neurri batzuk hartuta ere ezinezkoa dela premia berriei erantzutea.

5. Ez da aplikatuko 2. apartatuko muga Artium Museoa-Fundación Artium foru fundazioak langile lan kontratudunen plaza 1 sortzean, Arabat, Arabako Bideak-Vías de Álava SA merkataritza sozietateak langile lan kontratudunen 2 plaza sortzean eta Fundación Álava Mobility Lab foru fundazioan langile lan kontratudunen 2 plaza sortzean, eta Arabako Kalkulu Gunea AB merkataritzako foru-sozietatean langile lan kontratudunen 5 plaza sortzean.

#### **20. artikulua. Foru Sektore Publikoko bestelako erakundeen ordainsari araubidea**

1. Foru merkataritza sozietateetako eta foru fundazioetako langile lan kontratudunen 2025erako ordainsari osoak, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, foru arau honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik gertatu dira, alderatutako bi aldiatarako homogeneotasunaren arabera, bai langileei dagokienez, bai haien antzinasunari dagokienez, eta Estatuko oinarritzko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.

2. Aurreko apartatuan esandakoaz gain, ordainsarrietan egokitzapen bereziak egin ahal izango dira salbuespen gisa, betiere ezinbestekoak direnean, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langileen kopuruaren aldaketagatik edo programari ezarritako helburuen betetze mailagatik eta aplikazioaren emaitza indibidualagatik, egokitzapenak egiten dituzten erakundeetako bakoitzean horretarako organo eskudunak onartuta.

Horren ildotik, foru sozietate publikoek eta foru fundazio publikoek funts bat ezarri ahal izango dute produktibitate osagarria emateko bai errendimendu pizgarrien bidez, bai produktibitate kontzeptuaren beraren bidez. Kontzeptu horiengatik ordainsaririk emanez gero, kasuan kasuko organo aginpidedunek funts horren banaketaz ezartzen eta onesten dutenaren arabera emango dira. Hain zuzen ere, artikuluko 1. apartatua eta 3. eta 4. apartatuetan jasotzen diren langileei, bertan zerbitzuan ari direnei, emango zaizkie. Aurreko paragrafoetan ezartzen denaren arabera 2025eko ekitaldian ordaintzen diren kopuruei abenduaren 28ko 13/2000 Legeak, Estatuaren 2001eko aurrekontu orokorrenak, hamaikagarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen irizpideak aplikatu ahal izango zaizkie hurrengo urterako gehitzeko, enplegatu publikoen oraingo ekitaldiko aldizkako ordainsarien barruan finkatze aldera.

3. Foru kargu publikoak diren pertsonen doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2025ean, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsari horiei Foru Kargu Publikoetan Aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen duena aplikatuko zaie.

4. Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin negoziazioak egin ondoren ordainsarien inguruko akordioak sinatu baino lehen Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailaren aldeko txostena beharko da, eta akordioan ezin izango da ezarri guztirako ordainsarien igoera artikuluko 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoa baino handiagoa izatea.

## VI. TITULUA. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDEEN FINANTZAKETA

### 21. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen finantzaketa

1. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 51. artikuluan aipatzen dituen itundu gabeko tributuetan udalek izango dituzten partaidetzen zenbatekoak Estatuako Administrazioak igortzen dituen eurak izango dira, eta hark igortzen dituen maiztasun berarekin aginduko dira.

2. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek honako partaidetza hauek izango dituzte, 2025eko ekitaldirako zerga itunduetan, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldira aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen V. kapituluaren ezarritakoaren arabera:

a) Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren zuzkidura, 289.983.110,00 eurokoa, 2025eko ekitaldiari dagokion finantzaketa baldintza gabe osoaren kontzeptupean.

b) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren zuzkidura, 20.286.805,00 euroko zenbatekoarekin, Auzokideen Harremanak Sustatzeko Ekimenei laguntzeko programaren zuzkidura, 684.277,00 euroko zenbatekoarekin, eta "Obra txikiak egitea" laguntza-programaren zuzkidura, 2.052.832 euroko zenbatekoarekin, 2025eko ekitaldiari dagokion urteko guztizko finantzaketa baldintzatu gisa.

c) Gizarte zerbitzuen zorroa finantzatzeko zuzkidura, 2.807.000,00 euroko aurrekontuarekin.

### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Dirulaguntza eta transferentzien aurrerakinak, eta komunikazioa Batzar Nagusiei

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 32.6 artikuluan jasotako ondorioetarako, 2025eko ekitaldian, 20.000,00 eurotik gorakoak ez diren dirulaguntzen eta transferentzien ordainketak, edo onuradunak sektore publikokoak badira, ez dira egongo haren araudi erregulatzailean aurreikusitako aurrerakinaren ordainketari buruzko mugen mende.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Langileen gastuak

Ordainsari igoera ezartzen da 2025eko ekitaldian. Igoera Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak eta baimena ematen zaien foru sektore publikoko gainerako organo eskudunek zehaztuko dute; nolahi ere, gehienez ere, Estatuko oinarritzko legerian ezartzen den muga orokorraren bestekoa izango da.

## HIRUGARREN XEDAPEN OSAGARRIA. Arabako Foru Ogasunaren tasen aldaketa orokorra

Lehenengoa. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, handitu egingo dira Arabako Foru Ogasunaren tasa-tasak, zenbateko finkokoak badira

— oinarriko ehuneko batek zehazten ez dituelako-, 2024an eska daitekeen zenbatekoari 1,04 koefizientea aplikatuz ateratzen den zenbatekoraino.

Bigarrena. Aurreko apartatuan ezarritako koefizientea aplikatuta ateratzen diren tasak unitatetan biribildu ahal izango dira, goitik edo behetik.

## LAUGARREN XEDAPEN OSAGARRIA. Arabako Lurralde Historikoko arrantza esparruetan karramarroak arrantzatze baimenak emateagatiko tasa kentzea

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, kendu egiten da Arabako Lurralde Historikoko arrantza esparruetan karramarroak arrantzatze baimenak emateagatiko tasa, 2000rako aurrekontua gauzatzeari buruzko uztailaren 17ko 12/2000 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren bidez sortua.

## BOSGARREN XEDAPEN OSAGARRIA. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua aldatzea

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6. artikuluko 1. apartatuan a) letraren edukia aldatzen da eta j) letra eransten da. Hona hemen nola idatzita geratzen den:

**"6. artikulua. Edukia**

1. Toki erakunde eta haien erakunde autonomoen eta, partzuergoen aurrekontuetako bakoitzak honako hauek izango ditu:

a) Diru sarreren egoera orria, ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoen zenbateko zenbatetsiarekin, eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan sortutako finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakinaren zenbatekoarekin, hasierako aurrekontuko gastuen egoera orrian sartutako gastuak finantzatzeko, foru arau honen 48.8 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Gastuen egoera orria, bakoitzaren betebeharrak, ordainketakoak zein konpromisokoak, betetzeko beharrezkoak diren kredituak jasoko dituen.

c) Programa taldeen deskribaketa taulak, 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Aurrekontuaren memoria, edukiaren eta aurreko aurrekontuen aldean gertatu diren aldaketa nagusien berri ematen duena eta aurrekontua egiteko kontuan hartu diren irizpideak azaltzen dituen.

e) Onetsitako eta erabilitako konpromiso kredituen eranskina. Eranskin horretan, erakundeak aurrekontua aurkezten den egunean erabilitako konpromiso kredituak jasoko dira, dagozkien urteetarako bereizita; likidatu gabeko aurrekontuetan, egun berean indarrean dauden kontsignazio guztiak jasoko dira.

f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina, lurzoru ondare publikoari dagozkionak eta gainerakoak bereizita.

g) Transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapitalen eranskin bat, aurrekontuan kapitulu horiengatik aurreikusitako gastuak zehaztuta, bai eta aplikatu beharreko araudia eta emateko prozedura ere.

h) Zorpetzeari buruzko eranskin bat, aurrekontu ekitaldiaren hasieran eta amaieran erakundeak izango duen finantza zorraren aurreikusitako mailarekin, aurreikusitako aldaketak eta interesen ordainketak zehaztuta.

i) Langileen eranskin bat, aurrekontu zuzkidura duten lanpostuen banakako zerrendarekin, ordainsariak eta gizarte gastuak bereizita.

j) Finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako proiektuen eranskina, proiektu bakoitzari lotutako aurrekontu aplikazioak identifikatuta.”

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 14. artikuluko 6. apartatua aldatzen da. Hona hemen nola idatzita geratzen den:

“6. Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontuetako bakoitza hasierako defizitik gabe onartu beharko da.

Nolanahi ere, eragiketa arruntengatik sarrerak, gutxienez, izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatik amortizazio gastuak adinakoak izango dira. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastu arruntak.”

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 48. artikuluko 8. apartatua aldatzen da. Hona hemen nola idatzita geratzen den:

“8. Finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakina aurrekontuaren hasierako aurreikuspenen parte izango da, bertan sartutako ordainketa kredituak finantzatzen dituen zenbatekoan, baldintza hauek betetzen badira:

– Hasierako aurrekontu orekaren eskakizuna ez betetzea, ordainketa kredituak zuzkitu behar direlako lotutako baliabideekin finantzatutako gastu bat gauzatzeko.

– Lotutako baliabideak aurreko ekitaldietan kobratu izana eta diruzaintzako gerakinean behar bezala integratuta egotea.

Diruzaintzako gerakina ez da, inola ere, hasierako aurreikuspenetan sartuko, eta, ondorioz, ezingo ditu gastuen aurrekontuko hasierako kredituak finantzatu.

Ekitaldi bateko diru sarreraren aurrekontuaren hasierako aurreikuspen gisa sartutako diruzaintzako gerakin lotua, hala badagokio, dagokion minorazioa izan beharko du, baldin eta, aurreko ekitaldiko kontabilitatearen erregularizazioa eta itxiera egin ondoren, hura osatzen duten finantzaketa desbideratze positiboaren benetako balio kalkulatu uneko ekitaldiko aurrekontua egiteko unean zenbatetsitakoa baino txikiagoa bada.

Murrizketa horrekin batera, hala dagokionean, beste aurrekontu kontzeptu batzuei esleitutako diru sarreraren aurreikuspenak gehitu beharko dira, edo, hori ezinezkoa denean, gastuetarako onartutako kredituak behar bezala murriztu beharko dira, hasierako aurrekontu orekari eusteko.”

#### SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako toki erakundeek hitzartu beharreko epe luzeko kreditu eragiketak

Lehenengoa. Ezertan eragotzi gabe Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 57.3 artikuluan ezarritakoa, 2025. urtean Kontuen Europako Sistemaren definitzioaren eta mugaketaren arabera Administrazio Publikoen sektorean sailkatuta dauden toki entitateek eta haien mendeko entitateek, 2024ko ekitaldiaren likidazioa aurrezki garbi positiboa

edo likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten 100eko 2tik beherako aurrezki garbi negatiboa badute, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 53. artikuluan ezarritako moduan kalkulaturik, epe luzeko kreditu eragiketa berriak hitzartu ahalko dituzte, baldin eta kapital biziaren bolumen osoak likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten ehuneko 60 gainditzen ez badu, kontabilitate egoera bateratuetatik ondorioztatutako zifren arabera, eta, hala badagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuari eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Araudiari jarraikiz.

Bigarrena. 2025eko ekitaldian, Kontuen Europako Sistemaren definizioaren eta mugaketaren arabera Administrazio Publikoen sektorean sailkatuta dauden toki-entitateek eta haien mendeko entitateek epe luzeko zorpetze eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, Arabako Foru Aldundiak baimena eman ondoren, eta, hala badagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileari jarraikiz; betiere, 2024ko ekitaldia aurrezki garbi positiboarekin edo nuluekin likidatzen badute eta likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten ehuneko 60 baino gehiagoko zorpetze bolumena badute, baina ehuneko 110 edo txikiagoa.

Hirugarrena. 2025eko ekitaldian, toki erakundeek eta Europako Kontu Sistemako definizioaren eta mugen arabera administrazio publikoen sektorean sailkatuta dauden haien mendeko erakundeek, ez badituzte betetzen lehenengo eta bigarren idatz zatietan azaldutako baldintzak, ezingo dute epe luzerako kreditu eragiketarik hitzartu.

Laugarrena. Aurreko apartatuetan azaldutakoaren salbuespen gisa, hitzartutako epe luzerako kreditu eragiketak birfinantzatzeko eragiketak formalizatu ahal izango dira, betiere helburutzat badute eragiketa haien finantza karga arintzea, amortizazio epea luzatzea edota arriskua gutxitzea, mugaeguneratzeko dauden eragiketen ondoriozko obligazioei dagokienez, aldeztatik Arabako Foru Aldundiaren baimena jasota.

Baimenari kalterik egin gabe, kasu horietan honako baldintza hauek ezartzen dira:

a) Erakundeek likidazioan aurrezki garbi positiboa badute eta haien zorra ehuneko 60tik gorakoa bada baina ez badu gainditzen likidatutako edo sorrarazitako diru sarrera arrunten ehuneko 110, kontabilitate orri bateratuetatik ateratako zifren arabera. Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez, kapital bizia murrizteko plana onartu beharko da, bost urte igaro baino lehen kapital biziaren zenbatekoa ehuneko 60 edo gutxiago izan dadin.

b) Erakundeek likidazioan aurrezki garbi negatiboa badute edo haien zor biziaren zenbatekoak likidatutako edo sorrarazitako diru sarrera arrunten ehuneko 110 gainditzen badu, kontabilitate orri bateratuetatik ateratako zifren arabera. Osoko bilkuraren erabaki bidez, finantza saneamenduko edo kapital bizia murrizteko plan bat onetsi beharko da, gehienez ere bost urteko epean aurrezki garbiaren zeinua edo zor biziaren bolumena zuzentzeko, zor bizia ehuneko 110ekoa edo txikiagoa izan dadin, hurrenez hurren.

Ezingo dira birfinantzatze horretan sartu otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 34. eta 49. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz egindako eragiketak.

Goiko a) eta b) apartatuetan aipatutako planak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaizkio. Toki erakundeek kontuhartzaile lanak egiten dituen organoak plan horien betetzeari buruzko txostena egin beharko du urtero. Toki korporazioaren Osoko Bilkurari txosten horren berri emango zaio, jakitun egon dadin. Gainera, Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio.

Aipatutako planak bete ezean, toki erakundeak ezingo du epe luzerako zorpetze eragiketarik hitzartu edozein motatako inbertsioak finantzatzeko.

Edonola ere, ezingo da areagotu Arabako Biltzar Nagusietan onartutako Aurrekontu eta Finantza Bideragarritasuneko Planaren arabera baimendutako eragiketen amortizazio epea, berau arautzen duen Foru Araua aurretik aldatu ez bada.

Bosgarrena. Aurrezki garbiaren eta zorpetze mailaren kalkuluan zenbatu behar diren diru sarrera arruntak zehazteko, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 53. artikuluan 57. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Seigarrena. Kapital bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2024ko abenduaren 31n indarrean dauden eragiketa guztiak, abalen ondoriozko arriskua barne, eta azken horri gehituko zaizkio formalizatutako eragiketarako saldo ez erabiliak eta proiektatutako eragiketen zenbatekoa, halakorik egonez gero. Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko behin betiko likidazioen ondorioz toki erakundeek itzuli behar dituzten saldoak ez dira kontuan hartuko.

Zazpigarrena. Toki erakundeek egindako zorpetze eragiketarako Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaizkio formalizatzen direnetik hilabete igaro aurretik.

Zortzigarrena. Toki erakundeek kreditu eragiketarako ituntzeko beren prozeduretan parte hartzen duten finantza entitateen esku jarriko dute tokiko kontu hartzaitzaren txostena, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 55. artikuluan 2. apartatuan arautua. Txosten horretan, aurreko paragrafoetan aipatutako mugak betetzen direla egiaztatzen duten kalkuluak jasoko dira, bai eta ordaintzeko gaitasunaren neurketari eragiten dion beste edozein doikuntza ere, eta, aplikatzekoa den kasuetan, aipatutako arau horren 53.5 artikuluan araututako nahitaezko baimena betetzen dela adieraziko da. Finantza erakundeek, hala badagokio, beren eskaintzak aldatu edo kendu ahal izango dituzte, txostenaren edukia ezagutu ondoren.

